



Iritziak

Eurokeynesianismo militarra



ENDIKA ALABORT
AMUNDARAIN
EKONOMIALARIA

Europa berrarmatu. Europa defen-
datzeko berrindustrializatu. Hori
da azkenaldian Europar Batasu-
neko agintari politikoek sustatu
nahi duten agenda, Europako defentsari
buruzko Liburu Zuria, Europa BirAr-
matu eta 2030 Prestasuna planen bi-
dez. Militarismoa sustatzeko aitzakiak
dira Ukrainako gerra eta nazioarteko
harremanen aldaketa azkarra eta eze-
gonkorra. Europar industria jasaten ari
den erronkaren aurrean, berrarmatzea
irtenbide moduan planteatzen ari da.
Europar Batzordeko Ekonomia komi-
sarioak aldeko argudio ekonomikoak
plazaratu ditu: militarizazioak hazkun-
de ekonomikoa bultzatu, berrikuntza
sustatu eta enplegua sortuko du.

Tokiko gobernuak ere neurri horiek
txalotu dituzte. Eusko Jaurlaritzaren ka-
suan, Europako defentsarako proiektua
lagundu behar dela azpimarratu du, en-
presentzat eta euren azpikontratentzat
urrezko aukera baita. Laguntza hori ez
da berria, hainbat ikerketak agerian utzi
ditu administrazio publikoek emanda-
ko dirulaguntzak gerra arloko enpresei,
hizkera orwellianoan *defentsa industria*
moduan izendatzen dena.

Helburutzat gerra duen bidearen au-
rrean, mugimendu antimilitaristak az-
kar eta irmo salatu du europar berrar-
matzea, baita Euskal Herriko industria
militarra ere. Mundu akademikotik ere
Armagintza industria ez da bide(zko)a
manifestua zabaldu dute. Agerikoa da
ekonomia-gerra honen aurrean dagoen

Ez dago euskarri
teoriko edo enpiriko
sendorik gastu militarra
erremedio ekonomiko
gisa beharrezkoa
(edo, are, bereziki
eraginkorra)
dela pentsatzeko

aurkakotasuna. Hala ere, politikari eta
lobbystek bide horren alde on ekonomi-
koak azpimarratzen dituzte. Hala al da?

Keynesianismo militarra da propo-
samen honen atzean dagoena. Horren
arabera, gastu militarrek hazkunde eko-
nomikoaren pizgarri gisa jardun dezake.
Gobernuaren gastu militarrek (meha-
txu errealean edo alegiazkoen ondorioz)
eskari agregatua bultzatzen du. Horrek
ekonomia bultzatzen du, bai era zuzen-
nean (gobernuaren erosketen bidez),
bai zeharka (efektu biderkatzailearen
bidez). Batzuek argudiatzen dute erabili-
tako kapitala eta lana mantentzean atze-
raldiak edo depresioak saihesten dituela.
Hots, koordinaziorik ez duten sistema
kapitalistentzat gerra edo gerra-meha-
txua ekonomikoki onuragarria da.

Proposamen hau ekonomikoki ba-
liozkoa da? Zerga-pizgarriak eskaria
bultzatzen du depresioetan. Zalantzarik
gabe, gastu militarra ez da ekonomia
suspertzeko modu bakarra (beste gastu
batzuek, zerga-murrizketek edo Keyne-
sen *animal spirits*-ak berreskuratu arte
itxaroteak funtziona dezakete).

Espereintzia historikoak zer dio?
Alemanian, susperraldia Hitlerren
aurretik hasi zen eta pizgarri fiskala
ahula izan zen 1937ra arte. Kontsumoa
erreprimitu zen; ez zen efektu biderka-
tzaile handirik aurkitu. AEBetan, Biga-
rren Mundu Gerrak ez zuen herrialdea
berez Depresio Handitik atera, eta ge-
rra horren aurreko benetako motorra
inbertsio pribatua izan zen. Gerra Ho-
tzari erreparatzen badiogu, gastu mi-
litarra handitu egin zen aldi horretan,
baina murriztu egin zen denborarekin,
oparotasuna handitu arren. Ez dago
harreman sinplerik osasun ekonomi-
koaren eta gastu militarren artean.

Keynesianismo militarra teoria in-
teresgarria izan daiteke, baina ahula,
ekonomia modernoak eta datu histo-
rikoek erakutsi dutenez. Ez dago eus-
karri teoriko edo enpiriko sendorik
gastu militarra erremedio ekonomi-
ko gisa beharrezkoa (edo, are, bere-
ziki eraginkorra) dela pentsatzeko.
Politika ekonomikoak ez luke gerrak
bultzatutako estimuluen mende egon
behar. Baina hori da Europako eta
Euskal Herriko elite politiko eta eko-
nomikoen hautua. ●